



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren martxoaren 2ko EBAZPENA, aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzen duena.

Uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, 12. artikuluan xedatzen duenez, "deialdi espezifikoetan kontuan hartu ahal izango da zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetarako luzatzeko aukera, egindako lana era positiboan aldeztu aurretik baloratu ondoren".

Horren arabera, eta 79/2017 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

LEHENA.-Aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzea, ebazpen honen eranskinean agertzen diren deialdi espezifikoetan.

BIGARRENA.- 2017/2018ko ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu eta egoera horretan 2018/2019ko ikasturtean jarraitu nahi dutenek izango dute zerbitzu-eginkizun hori luzatzea eskatzeko aukera.

HIRUGARRENA.- Hezkuntza Sailaren web orrian eskura dagoen ereduaren arabera egingo da zerbitzu-eginkizuna luzatzeko edo berorri uko egiteko eskaera eta zerbitzuak ematen dituen ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztuko da.

Ikastetxeko zuzendaritzak zuzenean Hezkuntza Ikuskaritzari edo Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari bidaliko dio eskaera, eskatzaileak egin duen irakaskuntza-lana ebaluatzeko txosten batekin batera.

LAUGARRENA.- Zerbitzu-eginkizuna luzatu ahal izateko baldintzak hauek dira:

1.-Deialdia eragin zuen premiak jarraitzea.

2.-Hezkuntza Ikuskaritzaren edo Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren aldeko ebaluazio-txostena egotea.

3.-Abenduaren 26ko 53/1984 legeak, Administrazio Publikoaren Zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunari buruzkoak, arautzen dituen bateraezintasun-egoeretakoren batean ez egotea.



BOSGARRENA.- Aldeko ebaluazio-txostena emateko, eskatzaileak lanpostuan benetan aritu behar izan du 2017/2018ko ikasturtean eguneko 2/3ko gutxienezko lanaldiarekin, ebazpen hau argitara ematen den datara arte.

Salbuespen gisa, amatasun-, aitatasun-, adopzio-, urte sabatikoaren, semea /alaba zaintzeko eszedentziaren edo aldi baterako ezintasunaren kasuetan, benetan aritu izandako denbora aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat ez badator, aurreko ikasturtean eta, behar izanez gero, ikasturte honetan benetan emandako denbora hartuko da kontuan ebaluazioa egiteko orduan.

2017/2018ko ikasturterako lehen aldiz baimendu diren zerbitzu-eginkizunen kasuan, aurreko paragrafoan agertutako egoeretan agertzen badira, eman ahal izango da luzatzeko baimena, betiere ebaluazio-txostena negatiboa ez bada.

SEIGARRENA.- 2018ko martxoaren 6tik 16ra artekoa (biak barne) izango da zerbitzu-eginkizuna luzatzea edo berorri uko egitea eskatzeko epea. Epe horretan behar den tokian, Hezkuntza Ikuskaritzan edo Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzan, aurkeztu beharko du dokumentazio guztia ikastetxeak.

ZAZPIGARRENA - Zerbitzu-eginkizuna luzatzeko edo berorri espresuki uko egiteko eskaera ebazpen honetan xedatutakoaren arabera egiten ez dutenek galduko dute zerbitzu-eginkizunean jarraitzeko eskubidea eta zerbitzu-eginkizun horri uko egiten diotela interpretatuko da.

ZORTZIGARRENA.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da zerbitzu-eginkizunak luzatzeko baimena, eskatzaileek ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ondoren. Uko egiteak aipatutako ebazpenean ere onartuko dira. Zerbitzu-eginkizunak luzatzea emateari eta uko egiteak onartzeari buruzko ebazpena, deialdi espezifiko bakoitzean, Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara, jakinarazpenaren ondorioetarako.

Aipatutako ebazpena argitara eman ondoren, ezin izango da luzatzeari uko egitea eskatzeko idazkirik aurkeztu.

Gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BEDERATZIGARRENA.- *Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak* 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

En Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 2a

Konrado Mugertza Urkidi
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



ANEXO / ERANSKINA

Hezkuntza Ikuskaritzaren edo Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren aldeko ebaluazio-txostena egotea.

- Esku-hartze globalaren proiektuak
- Ingurune bazteruetan dauden ikastetxeak
- Hamaika Esku
- Ikastetxe berriak
- HEH orientatzaileak
- IES Ibarrekolanda
- IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara
- UHEI
- Zumarragako Ibaiondo zentroa
- Proiektu pedagogiko bereziak
- Hezkuntza premia bereziak
- Sukarrieta
- Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarria.
- Tknika
- IVAC
- IDEATK
- CIFP Emilio Campuzano LHII
- CIFP Kardala LHII
- CIFP Tartanga LHII
- Eskola Txikiak
- Ikuskaritza

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren aldeko ebaluazio-txostena egotea.

- Berritzegune: Idazkari/ dokumentalistak
- Berritzegune: Laguntzaileak
- Berritzegune: Laguntza zerbitzuak
- Irale
- Barnetegiak
- ISEI